

## **125. ALDIZKARIA - 2011ko ekainaren 27a**

### **2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK UHARTE**

#### **Trafikoari buruzko Ordenantza. Akats zuzenketa**

Trafikoari buruzko Ordenantzaren iragarkian, 2011ko 120. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, ekainaren 20an, argitaratu den hartan, lehenbiziko paragrafoak honela dio: "hasiera batean onestea Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala"; eta honela behar du: "Trafikoari buruzko ordenantza".

Uharten, 2011ko ekainaren 20an.-Alkatea, Iñaki Crespo San Jose.

## **120. ALDIZKARIA - 2011ko ekainaren 20a**

### **2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK UHARTE**

#### **Trafikoari buruzko udal ordenantza. Behin betiko onespena**

Uharteko Udalak, 2011ko martxoaren 30ean egin osoko bilkuran, erabaki zuen hasiera batean onestea Eremu publikoko eta herrilurretako zoru, hegalkin eta zorupeko aprobetxamendu berezien tasak arautzen dituen ordenantza fiskala. Iragarkia 2011ko 87. Nafarroako Aldizkari Ofizialean eman zen argitara, maiatzaren 9an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betikoz onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Uharten, 2011ko ekainaren 10ean.-Alkatea, Javier Basterra Basterra.

## ZIOEN AZALPENA

Uhateko Udalak egun ere Trafikoari buruzko ordenantzarik ez daukala ikusirik. Kontuan izanik martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legea, 7. artikuluan Udalaren eskumenak trafikoari buruz arautzen baititu, eta, orobat, azaroaren 23ko 18/2009 Legea ere, aurrekoaren testu artikuluduna aldatzen baitu zehapen gaiei dagokienez. Bestalde, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorraren 39. artikuluan zirkulazioa mugatzeko aukera ematen da, baita abiadura ere (50. artikulua), eta 93. artikuluan zehazten da udal ordenantzaren bidez erregulatuko dela hiriko bideetan gelditzeko eta aparkatzeko araubidea. Hori guztia dela eta, bidezkoa da Uharteko trafikoa arautzen duen udal ordenantza hau prestatzea.

Joan den mendearen azken urteetan, ibilgailu pribatua lehenesteko joera nagusitu zen ia Europa osoan. Azkarra eta eroso da garraio mota hau, aukera ematen duena bertatik bertaraino lekualdatzeko. Abantaila horiek, ordea, desagertuz joan dira eta, aldiz, hirietako arazo handienetariko bat bilakatu dira, Uhartean ere bai, maila apalagoan izanagatik ere. Pilaketak, kutsadura, asotsa, aparkatzeko zailtasunak, trafikoak sorrarazitako segurtasun eza, horra norberaren autoaren gehiegizko erabileraren ondorioetariko batzuk. Autoaren noranahiko erabilera parametro ez iraunkorretan oinarritua dago eta eragiten ari zaie bertzelako garraio motei, hala nola garraio publikoari, haren abiadura moteltzen eta erregulartasuna gutitzen baitu, eta horrek, orokorrean, herritarren bizi kalitateari eragiten. Bestalde, ibilgailuak eta ibilgailu motak gero eta gehiago izanda, aparkatzeko toki ia guztiak okupaturik daude, eta zenbait kasutan, autokarabana, karabana eta ibilgailuak ez diren beste gurdi motei dagokienez, okupazio horrek luze irauten du. Espazio egokiak sortu dira bizitzeko: Martiket, Itaroa, Zokoa... Bertan, familia bakarreko etxebizitza garajedunak dira nagusi, aparkatzerakoan ezaugarri bereziak dituztenak, eta irtenbideren bat eman beharko zaie haiei ere.

Iraunkortasunerako politikak bultzatuz eta joera nagusi horri buelta eman nahian, oinezkoaren segurtasuna eta garraio publikoaren arintasuna lehenesten dituen zirkulazio eredua sustatu zuen Uharteko Udalak, errepide gaineko pasabideak oinezkoentzat paratuz eta kale batzuk oinezkoen erabilera bakarrerako egokituz. Zenbait kaletan, zirkulazioaren zentzua antolatu zen, aparkatzeko ordutegi mugatua zeukan zerbitzugune bat sortu zen, herrian saltoki gehien dituen eremuko espazioak hobeki probestu daitezzen, saltzaileen zein erosleen mesederako, eta aparkatzeko toki ia guztiak seinalezatu ziren. Orain, lehenago aipatutako ibilgailu mota berri hori ugalduta okupatu diren espazioak eta familia bakarreko eremuak erregulatzea falta da; horretaz gainera eta garrantzizkoena izanik, falta da banan-banan egin diren aldaketa horiek guztiak udal ordenantza batean biltzea.

## I. TITULUA

### **XEDAPEN OROKORRAK**

## I. KAPITULUA

### **XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA**

1. artikulua. Xedea eta aplikazio esparrua.

Ordenantza honen xedea da zirkulazioa arautzea Uharteko udal mugapeko bideetan.

Ordenantza honetako aginduak aplikatuko dira Uharteko udal mugape osoan eta behartuko dituzte zirkulaziorako on diren bide eta lur publikoen titularrak, horretarako on ez izan arren erabilera komuneakoak diren bide eta lurren titularrak eta, beste araurik ezean, erabiltzaile multzo zehaztugabe batek erabiltzen dituzten bide eta lurren titularrak ere bai.

2. artikulua. Udalaren eskumena.

Uharteko Udalak eskumen hauek ditu:

a) Trafikoaren antolamendua eta kontrola bere udal mugapearen barnean, baita haren zaintza ere, albienteen zerbitzuaren eta haren laguntzaileen bitartez, edo, sortuko balitz, Udaltzaingoaren bidez, bide horietan egiten diren arau-hausteen salaketa eta beraien zehapena, lan hori espresuki beste administrazio baten eskuetan ez dagoenean.

b) Xedapen orokorren bitartez hiribideen erabilerak arautzea, bateragarri eginez aparkalekuen banaketa bidezkoa erabiltzaile guztien artean ibilgailuen trafikoaren nahitaezko arintasunarekin eta oinezkoen karriken erabilpenarekin.

c) Ibilgailuak hiribideetatik kentzea eta gero altxatzea, araudiak horrela jasotzen duenean.

d) Kirol proben baimena, oso-osorik Uharteko udal mugapean barna baizik pasatzen ez direnean.

e) Bide segurtasunaren zaintza eta kontrola atxikirik dituen tokietan, erregelamenduak ezarritako probak egitea bide horietan barna dabiltzan gidarien intoxikazio maila zehaztu beharrez, dela alkoholak, dela sorgorkariek, dela substantzia psikotropikoek edo dela estimulatzaileek ekarria.

f) Bideak ixtea, beharrezkoa denean.

g) Pasabideak eta espazioen erreserbak baimentzea, hala aldi baterakoak nola iraunkorrak, eta trafiko murriztuko eremuetan sartzeko baimenak.

3. artikulua. Aparkatzea eta zirkulazioa antolatzea.

Udal agintaritzari dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan, jabetza pribatukoak izanik ere, aparkatzearen eta zirkulazioaren antolamendua baimentzea.

Horren ondorioz, Udalaren baimena izan ezean partikularrek debeku dute aparkatzea antolatzea, espazioak erreserbatzea, zirkulazioa moztea eta seinaleak paratu edo kentzea, arau-hauste larritzat hartuko baitira.

## II. TITULUA

### ZIRKULAZIOKO PORTAERA ARAU OROKORRAK

## I. KAPITULUA

### PORTAERA ARAU OROKORRAK

4. artikulua. Erabiltzaileak. Arau orokorrak.

1. Hiribideen erabiltzaileak behartuta daude jokatzera zirkulazioa ez trabatzeko, jendearentzat arrisku, kalte edo trabarik ez sortzeko eta ondasunak ez hondatzeko maneran.

2. Hiribideetan barna dabiltzan gidari edo oinezko guztiek kasu egin beharko diete agintaritzako agenteek egiten dizkieten oharrei, eta begiratu beharko dituzte zirkulazio seinaleek ematen dituzten aginduak.

5. artikulua. Erabiltzaileak, gidariak eta ibilgailuen titularrak.

Behar bezain arduratsu eta behar bezain kontu handiz erabili beharko dute gidariak ibilgailua, kalterik ez egiteko ez beren buruari ez besteei, kasu emanez arriskuan ez jartzeko gidaria bera nahiz ibilgailuko gainerako bidaiariak eta bidearen beste erabiltzaileak.

Gidariak egiaztatu beharko du ibilgailuaren matrikula plaketan oztoporik ez dagoela hura ongi irakurri eta identifikatzeko.

Ibilgailuen titularrek, eta, hala balegokio, haien errentariek, ahalik eta prestuen jokatu behar dute ibilgailua erabiltzeak dakartzan arriskuak saihesteko; horretarako, legez eta erregelamenduz eskatu bezala edukiko dira, dagozkien azterketak eta ikuskapenak eginez eta beharrezko gidabaimena eta lizentzia ez daukatenean gidatzea eragotziz.

Ibilgailu baten gidariak (txirrindularia barne) izan behar du mugitzeko aietasuna eta behar den ikus eremua, eta gidatze lanera jarria izan behar du gogoia, etengabe izan ere, bere segurtasuna, ibilgailuaren gainerako bidaiariena eta bidearen berze erabiltzaileena bermatu beharrez. Alde horretatik, kasu handia eman beharko du, behar den jarreran egoteko, bai bera, bai gainerako bidariak ere, eta garraiatzen diren gauzak eta animaliak ere behar den tokian egoteko, gidariari trabarik egin ez diezaioten.

6. artikulua. Ibilgailuaren titularren betebeharrak.

Honako betebeharrak ditu ibilgailuaren titularrak:

Ibilgailua nork gidatzen duen jakinaraztea Administrazioari arau-hauste bat egiten denean. Ematen diren datuen artean, gidabaimenaren edo lizentziaren zenbakia ere egonen da, Gidariaren eta Arau-hausteen Erregistroan identifikatzeko.

Dagokion gidabaimena edo lizentzia ez daukatenean ibilgailua gida dezaten galaraztea.

Espresuki debeku da:

a) Gidatzean etengabe izan behar den arretarekin bateraezinak diren ikusizko pantailak erabiltzea, eta orobat telefonia mugikorrekotako tresnak edo komunikatzeko beste edozein baliabide edo sistema, salbu eta komunikazioa eskuez, kaskoz, entzungailuz edo gisako tresnez baliatu gabe egiten denean.

Alde horretatik salbuetsirik dago gidariak ikusmen dituen monitoreak erabiltzea, haren erabilpena beharrezkoa bada oinezkoen sarrera edo jaitsiera ikusteko, edo gibeletako maniobrak ikusteko kamerak dituzten ibilgailuetakoak bada, eta GPS gailua ere bai, baina hura gidariaren lagunek baizik ez dituzte erabiliko edo aparkaturik egotean bakarrik.

Agintaritzako agenteak ere salbuetsirik daude debeku horretatik, manaturik dauzkaten egitekoetan ari direnean.

Halaber salbuetsirik dago taximetroa edo autotaxien flotak kudeatzeko sistema erabiltzea.

b) Ibilgailua gidatzean, hotsa hartu edo berriro sortzen dituen aparatuen bati loturiko kasko edo aurikularrak jarrita edukitzea

c) Ibilgailua gidatzean, edozein arrazoiengatik bidea garbi ikusten uzten ez duten kristalak izatea.

d) Ibilgailuko ateak irekitzea arruntik gelditu baino lehen, edo ateak irekiz bideko beste erabiltzaileei traba egitea edo arriskua sortzea.

e) Radar inhibitzaileak, edo zirkulazioa zaintzeko sistemak ongi ez ibiltzea helburu duten beste edozein mekanismo paratzea edo hura paratuta daraman ibilgailu bat gidatzea. Zirkulazioa zaintzeko sistemak non dauden esaten duten abisu sistemak ez dute arau-hausterik ekarriko.

f) Bideko bertze erabiltzaile batzuei seinaleak egitea, bidezainen zaintza saihesten dezaten.

7. artikulua. Hiri garraioa.

Bidaiarien garraio kolektiboko ibilgailuen zirkulazioa erraztu beharrez, gainerako ibilgailuen gidariak alde batera egin beharko dute posible duten guztietan, edo abiadura mantsotu, baita gelditu ere, beharrezkoa bada, garraio kolektiboko ibilgailuek

beren bideari segitzeko behar diren maniobrak egin ahal ditzaten geraleku seinalatuetatik ateratzean.

Udal agintariak bide lerro batzuk erreserbatzen ahal ditu halako kategoriatan duten ibilgailuak ibiltzeko; kategoriatan horretarako ez direnek debeku izanen dute haietan barna ibiltzea.

Erabilera murriztuko lerroen eta erabilera orokorrekoen arteko tartea, zoladuran seinaleak pintatuz markatuko da, edo bertzenaz argi seinaleak edo bereizle fisikoak erabiliko dira, betiere gidariak ikusteko modukoak badira.

#### 8. artikulua. Hiri arteko garraio kolektiboa.

Beren jardueran aritzean, hiri arteko garraio kolektiboko ibilgailuek Uharte badute abiapuntu edo helmuga generikoa, horretarako ezarritako tokietan baizik ezin izanen dira gelditu.

#### 9. artikulua. Segurtasun uhalak.

Ibilgailuko plaza guztietan nahitaezkoa izanen da segurtasun uhalak edukitzea, edo bertzenaz, atxikitze bidez sistema behar bezala homologatu batzuk, zuzen lotuak, Uharteko udal mugapeko bide guztietan. Hona hemen salbuespenak:

1. Osasun arrazoi larriak direla edo elbarritasuna dela-eta salbuespen ziurtagiria duten pertsonak.

2. Gidariak, gibelka joateko edo aparkatzeko maniobra egitean.

3. Autotaxien gidariak, zerbitzuan aritzean 50 km/h-ko edo guttiagoko abiadura muga duten bideetan barna ibiltzen direnean.

4. Larrialdiko zerbitzuan ari diren ibilgailuen gidari eta bidaiariak, 50 km/h-ko edo guttiagoko abiadura muga duten bideetan barna ibiltzen direnean.

5. Hiri garraio publikoko autobusen gidariak.

6. Hiri garraio publikoaren erabiltzaileak.

7. Salgaien banatzaileak, 50 km/h-ko edo guttiagoko abiadura muga duten bideetan hainbat aldiz elkarren segidan aritzen direnean salgaien zamalanetan, batetik bertzerara tarte tikiak izanik.

#### 10. artikulua. Kutsadura, asotsa eta ibilgailuen erreforma debeku.

Ibilgailuak ez dira ibiltzen ahalko ordenantza honetan arautzen diren bideetan, ateratzen duten asotsa, motorrena edo beste nonbaitekoa izanda, eta aireratzen dituzten gas eta keak indarra duen legeriak ezarritako mugak baino handiagoak badira.

Debeku da bideetan barna ibiltzea hodia libre duen ibilgailu edo ziklomotorrean.

Ibilgailuen soinu-alarmak arrazoirik gabe pizteagatik zehapena ezarriko da.

Baimendu gabeko erreforma izan duten ibilgailuak ere ez dira bide horietan ibiltzen ahalko.

Ibilgailuen gidari guztiak beharturik daude aipatu akatsak egiaztatzeko egiten diren erregelamenduzko detekzio frogetan laguntza ematera.

Lehentasunik ez duten ibilgailuek debeku dute hots seinaleak erabiltzea. Hona hemen salbuespenak:

. Gerta daitekeen istripua galarazteko.

. Inguruabar bereziki larriak gertaturik, normalean lehentasuna duten ibilgailuek egin beharreko zerbitzua egitera beharturik daudenean.

11. artikulua. Ibilgailuen karga eta okupazioa.

1. Debeku da baimendu baino lagun kopuru gehiago eramatea edo haiek egokitzea gidariaren ikuspegia edo haren maniobrarako gaitasuna tratatzeko maneran edo Zirkulazioaren Araudi Orokorrean xedatua urratzeko maneran. Bidaiarien soberakina baimendu baino %50 gehiago bada, gidaria kanpo, arau-haustea oso larritzat hartuko da.

Eramaten den lagun kopuruari dagokionez, adin txikikoak kontatuko dira, ume guztiak loturik joan behar baitute haurrak atxikitze sistema ondoko puntuaren arabera homologatuak erabilirik, eta bakoitza bere jarlekuan daudela.

2. Segurtasun uhalen eta haurrak atxikitze bertzelako sistemen erabilera:

a) Ibilgailuaren aitzineko jarlekuei dagokienez:

1-Hiru urtetik beheitiko hurrek atxikitze sistema gibelera norabideturik dagoenean eta aurrealdeko airbagik ez dagoenean edo indargabetua dagoenean baizik ez dituzte erabiltzen ahalko ibilgailuaren aitzineko jarlekuak.

2-Aitzineko puntuan jasotakoa kenduta, debeku da hamabi urtetik beheitikorik ibilgailuaren aitzineko jarlekuan eramatea, salbu eta horretarako gailu homologaturik erabiltzen badute eta airbagik ez badago edo indargabetua badago.

Salbuespenez, 135 zentimetro luze edo gehiago direnean, hamabi urtetik beheitikoek erabiltzen ahalko dute, atxikigailu gisa, aitzineko jarlekuek duten helduendako segurtasun uhala.

b) Ibilgailuaren gibeledako jarlekuei dagokienez, 135 zentimetro luze egiten ez duten lagunek atxikitze gailu homologatua erabiliko beharko dute, beren luzerari eta pisuari egokitua, salbuespenak izan badaitezke ere Zirkulazioaren Erregelamendu Orokorrean jasoak.

3.-Debeku da inor garraiatzea ibilgailuetan jendearendako ezarria eta egokitua ez den bertze inon.

4.-Lagun bakar batendako eginak diren zikloetan, garraiatzen ahalko da, gidaria adinez nagusi denean, adin txikiko bat, gehienez ere zazpi urtekoa, jarleku gehigarri eta homologatu batean. Adin txikikoak kasko homologatua jantzi beharko du.

5.-Debeku da hamabi urtetik beheikoak ziklomotor edo motozikletetan bidaiari eramatea, haiek sidekarra izan ala ez, eta bide mota guztietan.

Salbuespenez baimendurik egonen da 7 urtetik goitikoak eramatea, betiere gidariak aita-amak, tutoreak edo beraiek baimendutako adinez nagusiren bat badira, kasko homologatua eta zangoendako euskarria erabiltzen badituzte eta segurtasunaren gainean erregelamenduz ezarritako baldintza berariazkoak betetzen badira.

6.-Debeku da animaliak eramatea, non ez den maletategian, hura gidariaren aldetik bereizia bada, kaiola horretarako homologatuetan, edo gidariarengandik sistema homologatuen bitartez bereizitako gailuetan.

7.-Ezin izanen da ibilgailuko karga erregelamenduz ezarri ez bezala antolatu.

12. artikulua. Larrialdiko zerbitzuan ari diren ibilgailuak.

1. Larrialdiko zerbitzuko ibilgailu publiko nahiz pribatuek, gisa horretako zerbitzuetan ari direnean, bide lehentasuna izanen dute bertze ibilgailuen eta bideko bertze erabiltzaileen aldean. Abiadura mugen gainetik ibiltzen ahalko dira eta, gidaria erantzule, bertze arau eta seinale batzuk betetzetik salbuetsirik egonen dira erregelamenduz zehazten diren kasu eta baldintzetan.

2. Zerbitzu hauetarako ibilgailuen gidariak araudi berezi honen erabilera zuhurra eginen dute larrialdiko zerbitzu batean dabiltzanean, eta saiatuko dira bideen gurutzaguneetan bide lehentasuna ez urratzera, lehenago behar diren ardurak hartuta, oinezkorik harrapatzeko arriskurik ez dela eta bertze ibilgailuen gidariak gelditu direla edo bide emateko prest daudela egiaztatu arte. Larrialdiko zerbitzu batean aritzean baizik ez dira erabiltzen ahalko lehentasuneko argi eta soinuak.

3. Agintaritzako agentek behar den bide atalean erabiltzen edo uzten ahalko dituzte beren ibilgailuak, haren erabiltzaileak sorosten ari direnean edo zerbitzuak edo zirkulazioak hala behar dutenean.

4. Larrialdiko zerbitzuetan ari diren ibilgailuek, argi seinalea eta hots seinale bereziak egiteko gailua erabiliz iragarriko dute heldu direla. Ibilgailu mota honen gaineko arauak aipatzen dituzte bata nahiz bertzea.

5. Lehentasuna duen ibilgailu bat hurbiltzen ari dela ohartarazten duten seinale bereziei ohartuta, gainerako gidariak behar diren neurriak hartuko dituzte, non noiz eta horrela, hari bide eman ahal izateko, eta baztertu edo geldituko dira, beharrezkoa bada.

13. artikulua. Larrialdietan nola jokatu.

1. Bideen erabiltzaileak, trafiko istripu batean nahasirik aurkitzen badira, halakorik ikusten badute edo horren berri badute, beharturik daude biktimak sorostera edo sorospena eskatzera, biktimarik bada, eta laguntza eman beharko dute, arrisku edo kalte handiagoak eragozteko, zirkulazioaren segurtasuna ahal dela birrezartzeko, eta gertatuak argitzeko, hori guztia Zirkulazioaren Erregelamendu Orokoraren 129. artikuluan ezarritakoarekin bat.

2. Istripua edo matxura dela-eta, ibilgailuak edo haren kargak bidean traba egiten badute, gidariak, ibilgailua edo sortutako oztopoa behar bezala seinالاتu ondoan, behar diren neurriak hartuko dituzte ahalik eta azkarrena ken dadin. Ahal dela, zuzen aparkatu beharko da edo behar diren neurriak hartu beharko dira ibilgailua eta karga ahalik era azkarrena ken dezaten bidetik.

14. artikulua. Eremu publikoko elementuei eta ibilgailuei egiten zaizkien kalteak.

Zirkulazioa arautzen duten seinaleei edo eremu publiko beste edozein elementuri kalte egiten dien gidariak Uharteko Udalari eman beharko dio horren berri, ahalik eta lasterren eman ere.

Gidaririk gabe aparkaturiko ibilgailu bati kalte egiten dion gidaria ibilgailuaren titularra aurkitzera ahalegindu beharko da eta egin dion kaltearen berri eman beharko dio, baita nor den adierazi ere.

Hura ezin bada aurkitu, agintzaritzako agente hurbilenari jakinaraziko zaio.

## II. KAPITULUA

### **OINEZKOAK**

15. artikulua. Oinezkoendako lehentasun eremuak edo sarbide murriztukoak.

Uharteko Udalak, segurtasuna zaintze aldera edo zirkulazioaren arintasuna edo oinezkoen joan-etorria errazte aldera, murriztapenak ezartzen ahalko ditu Uharteko halako alde batzuetan sartzeko baita hango karriketan aparkatzeko ere, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen 16. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Oinezkoendako lehentasun eremu edo sarbide murriztuetan ez zaio sartzen, ibiltzen edo aparkatzen utziko Udalaren behar den baimena ez duen ibilgailuari edo ordenantza honen 18. artikulua arabera debeku orokorretik kanpo dagoenari. Zama-lanetarako ibilgailuak baimenik gabe sartzen ahalko dira eremu horietan, lan horietarako ezarritako ordutegiaren barnean bada.

16. artikulua. Oinezkoendako eremuak.

Ordenantza honi dagokionez, oinezkoendako eremuak dira ibilgailu mota guztiendako sartzeko, ibiltzeko eta aparkatzeko debekua dutenak; ordenantza honen 1. eranskinean biltzen diren karrikek osatzen dituzte. Alkatetzaren ebazpenaren bidez eginen dira zerrenda horretako aldaketak, dagokion informazio batzordeak aztertu ondoan.

Oinezkoendako eremuak horretarako seinale zutikakoen bidez mugatuko dira, balizatzeko bertzeko elementu mugigarriak erabiltzen ahalko badira ere, haietan ibilgailuak sartzea eta ibiltzea eragozteko edo murrizteko.

Oinezkoendako eremuetan, ibilgailuen abiadura 20 km/h izanen da gehienez ere.

Oinezkoendako eremuetan ibilgailuak sartu eta aparkatzeko debeku orokorrarengatik ere, Udalaren organo eskudunak baimen berariazko edo generikoak luzatzen ahalko ditu, oinezkoendako eremuaren barnean diren garaje baimenduetan sartu ahal izateko, eta orobat bizilagun, merkatari eta taxilariendako, salgaien zamalanetan eta bidaiariak hartzen eta uzten ari ahal izateko.

#### 17. artikulua. Eremu partekatuak.

Ordenantza honi dagokionez, eremu partekatuak dira espaloirik izan gabe, zolu bakarra dutenak, maila berean, bai ibilgailuendako bai oinezkoendako; ez dago sartzeko, ibiltzeko eta aparkatzeko debekurik eta ibilgailuen abiadura 20 km/h da gehienez ere.

Eremu partekatuak horretarako seinale zutikakoen bidez mugatuko dira. Haien barnean, oinezkoendako eremuak seinale etzanen bidez bereiziko dira ibilgailuendako eremuetatik; hauetan, ibilgailuek lehentasuna izanen dute oinezkoen aitzinetik. Hala ere, gidariek ahalik eta zuhurrena eta oinezkoei ahalik eta errespeturik handiena erakutsiz gidatu behar dute.

#### 18. artikulua. Trafikoarendako eremu murriztuetara sartzeko baimenak.

Sarbide murriztuko eremuetan ibiltzeko eta aparkatzeko ordenantza honetan ezartzen duen debekua ibilgailu mota guztiei dagokie, bizikletak eta ondotik zehazten diren zerbitzuetan ari diren ibilgailuak kenduta:

1. Suteei aitzintzeko eta itzaltzeko zerbitzukoak.
2. Segurtasun indar edo kidegokoak.
3. Zabor bilketakoak.
4. Bidaiarien eskualdeko garraio publikokoak eta taxiak.
5. Uraz, argindarraz, gasaz eta telefoniaz hornitzeko enpresenak eta gisakoenak.
6. Osasun garraioko ibilgailuak.

7. Hileta zerbitzuetako ibilgailuak.
8. Mugikortasun murriztuko jendeendako ibilgailuak aparkatzeko txartelak dituztenak.
9. Udal zerbitzu edo kontratatetakoak, esleitutako lana egiten ari direnean.
10. Bereziki baimendutako ibilgailuak.

#### 19. artikulua. Oinezkoak.

1. Oinezkoak ibiliko dira berendako espaloi, pasabide eta ibiltokietan.

2. Orokorrean, obren esleipen hartzaileek, espaloia okupatu behar badute, horretarako baimena eskatu beharko dute, eta hartan sartuko dira oinezkoak arriskurik gabe pasatu ahal izateko hartuko diren segurtasun neurriak, ordezeko espaloiak etab. Udalaren berariazko onespina beharrezkoa izanen da.

eta beteko dira hark zuzentzeko jartzen dituen baldintza guztiak.

#### 20. artikulua. Debekuak.

1. Galtzada guruzatzea baimendu ez diren tokietan barna.
2. Laster edo jauzi egitea, edo gainerako oinezkoei traba egiteko maneran ibiltzea.
3. Autobusak eta zerbitzuko publikoko gainerako ibilgailuak itxarotea horretarako ezarri diren tokietatik edo espaloietatik kanpora, edo galtzadan sartzea gelditu daitezela eskatzeko.
4. Espaloietan gelditzean taldeak eratzea, gainerako erabiltzaileen joan-etorria zailtzen edo eragozten dutenak.
5. Ibiltzen ari diren ibilgailuetara igotzea edo jaistea.
6. Galtzadan eta bide gorrietan sartzea edo gelditzea.

### III. KAPITULUA

#### **PATINEKIN EDO MONOPATINEKIN IBILTZEA**

#### 21. artikulua. Zirkulazioa.

Motorrik gabeko patinak edo gisako tramankuluak erabiltzen dituztenak, ahal dela, bide gorrietan edo bizikletak ibiltzeko markaturiko eremuetan barna ibiliko dira, eta horretarako markaturiko bide lerrorik ez dagoenean baizik ez dira espaloietan edo oinezkoendako eremuetan barna ibiltzen ahalko, baina ez ibilgailu motordunak ibiltzeko lerroetan. Ari direnean, patinatzaileek oinezkoen ibiliari egokituko diote berea, eta

betiere trabarik egin gabe edo arriskurik sortu gabe ariko dira. Inoiz ez dute lehentasunik izanen oinezkoen aldean.

## 22. artikulua. Monopatinak.

Monopatinak eta gisako tramankuluak horretarako berariaz seinatu diren eremuetan baizik ez dira erabiltzen ahal, kirol moduan erabili ere. Monopatinak ez dira erabiltzen ahal ez espaloietan ez oinezkoendako eremuan, ezta bide gorrietan ere.

Inoiz ez da baimenik emanen patinak, monopatinak edo gisako tramankuluak erabiltzen dituztenak beste ibilgailu batzuei lotzeko edo beroiek herrestan eramateko.

## IV. KAPITULUA

### ***BIZIKLETA ETA ZIKLOMOTORREN ZIRKULAZIOA ETA ERABILERA***

## 23. artikulua. Bizikletak.

Bizikletak, trafikoaren arloan indarra duen araudiak loturiko bertze ibilgailu bat geiago den aldetik, ahal dela bide gorrietan eta galtzadetan barna ibiliko dira, uzten bazaie ere gainerako bide eta ibilbide seinatuetan ibiltzera.

## 24. artikulua. Bizikleten argiak, txirrina, osagarriak eta aparkalekuak.

Bizikletek txirrina eta argiak edo islagailuak izan beharko dituzte, indarra duen legeriak aurreikusten dituen baldintzetan. Orobat, adin txikikoak edo bertzelako karga eramateko elementu osagarri egokiez horniturik egon daitezke, hala nola aulki uztartuak, atoiak, erdi atoiak eta gainerako gailu behar bezala egiaztatu eta homologatuak, pisuaren aldetik agintzen diren mugak dituztela.

Bizikletak horretarako berariaz ezarri eta seinatu diren tokietan aparkatu behar dira, eta behar bezala segurtatuak.

100 metroko inguruan halako aparkalekurik ez bada, bizikletak aparkatzen ahal dira oinezkoendako eremuetan edo espaloien gainean eta hiri altzarietako elementuei loturik, betiere altzariei kalterik egiten ez bazaie eta haien erabiltzea eta trabarik ikusi ahal izatea eragozten ez bada, haien egitekoa aldatzen ez bada eta ibilgailu edo oinezkoen joan-etorria tratatzen ez bada. Ez da bizikletarik aparkatzen ahal, espaloiak lau metro zabal baino gehiago ez badu.

## 25. artikulua. Zirkulazioa bidegorrietan barna.

Trafikotik eta oinezkoak ibiltzeko eremuetatik bereizitako bidegorriak bizikletaz, patinez, bizikleta elektrikoetan eta ezgaitasuna dutenendako aulkietan ibiltzeko baizik ez dira erabiliko. Bide horien erabiltzaileek neurriko abiadura eraman behar dute, 20 km/h-tik goitik egiten ez duena, eta kasu eman beharko dute eta kontuz ibili, bide osoan.

26. artikulua. Bizikletak espaloietan barna.

Debeku da bizikletak espaloietan barna ibiltzea.

Salbuespenez, bizikletak espaloietan barna ibiltzen ahalko dira, soil-soilik behar bezala seinalaturik badaude eta baldintza hauekin:

Bizikletak zerrenda seinalatueta ibili beharko dute eta lehentasuna oinezkoak izanen du espaloi osoan; oinezkoak aitzinatu edo haiekin gurutzatzean, txirrindulariek metro bateko tartea utzi beharko dute haiengandik.

Oinezkoen kopuruak ez badu aukerarik ematen metro bateko tartea uzteko txirrindulariaren eta haien artean, txirrindulariak bizikletatik jeitsi eta oinez gurutzatu beharko du.

Bizikletak oinezkoei egokituriko neurriko abiadura joanen dira, betiere 10 km/h-tik beheiti, eta axolagabekeriaz edo ausarkeriaz oinezkoen segurtasunean eragiten duen maniobrarik egin gabe.

Espaloi seinalatueta eta bide gorrietan barna ibiltzen dituen txirrindulariak, galtzadetara ailegatzen direlarik oinezkoendako pasabidea dagoen tokietan, gelditu beharko dute, zangoa lur gainean ezarri eta galtzadan barna dabiltzan ibilgailuetatik ikusi dituztela egiaztatuta, segitzen ahalko dute aitzina. Pasabide horietan txirrindulariek lehentasuna dute galtzadan barna ibiltzen diren ibilgailuen aitzinetik.

27. artikulua. Bizikletak parke, pasealeku eta oinezkoendako eremuetan.

Bizikletek parke publiko, pasealeku eta oinezkoendako eremuetan ibiltzeko baimena dute, betiere, espaloietan bezala, beren abiadura oinezkoenera egokitzen badute, neurriko abiadura eramaten badute, 10 km/h-tik beheitikoa, eta axolagabekeriaz edo ausarkeriaz oinezkoen segurtasunean eragiten duen maniobrarik egiten ez badute. Lehentasuna oinezkoena izanen da beti, eta txirrindulariek metro bateko tartea utziko beharko dute, gutienez, oinezkoekin.

Parke publikoetan bizikletak eremu zolatuetan barna ibiliko dira, inoiz ez berdeguneetan barna.

Parke, pasealeku eta oinezkoendako eremuen barnean ibilbide seinalatu edo markaturik baldin bada, bizikletek zerrenda seinalatueta barna joan beharko dute nahitaez.

28. artikulua. Bizikletak galtzadan barna.

Galtzadan barna dabiltzan txirrindulariak eskuineko lerroan barna ibiliko dira, bat baino gehiago izanez gero. Bertze ibilgailu batzuekiko erreserbatutako lerrorik bada, ahal dela, lerro erreserbatuaren ondokoan ibiliko dira, non ez duen seinale batek adierazten bertan bizikletaz ibiltzen ahal dela. Orobat, eskuinaldetik ibiliko dira lerroaren barnean. Gainerako ibilgailuek bezala, trafikoko arau guztiak bete beharko dituzte.

Gainerako ibilgailuek, ziklistak aitzinatzean edo haien ondoan joatean, segurtasun tarteak utzi beharko dute, gutienez ere 1,5 metrokoa.

Zenbait txirrindulari batera ibiltzen badira, paraleloan joaten ahalko dira, betiere trafikoari traba egiten ez badiote eta bide-lerro bat baino gehiago okupatzen ez badute. Halakoetan, semaforoak, gurutzabideak eta gisakoak gurutzatzeari dagokionez, ibilgailu bakartzat hartuko da txirrindulari talde osoa.

29. artikulua. Ziklomotorrak.

Ziklomotorrek betiere pizturik izan beharko dituzte gurutzatze-argiak.

## V. KAPITULUA

### **ABIADURA**

30. artikulua. Abiadura mugak.

1. Orokorrean, 40 km/h da hiribideetan eta zeharbideetan ibilgailuek goititu behar ez duten abiadura. Hona hemen salbuespenak:

a) Ibilgailu bereziak, balaztatzeko seinalerik ez badute, atoa badaramate edo motokultoreak zein haien pareko makinak badira, 25 km/h-ko abiaduran joan daitezke hiri bideetan.

31. artikulua. Abiadura, noiz eta horrela.

Gidari guztiek errespetatu beharko dituzte ezarritako abiadura mugak eta gainera kontuan hartu beharko dituzte beren baldintza fisiko eta psikikoak, bidearen ezaugarriak eta egoera, baita ibilgailuarenak eta haren kargarenak ere, eta orobat eguraldiaren, ingurunearen eta zirkulazioaren baldintzak, eta orokorrean une bakoitzean gertatzen ahal diren inguruabar guztiak, ibilgailuaren abiadura haietara egokitzeak, haren abiadura betiere gelditzeko maneran bere ikuspenaren mugan eta edozein oztoporen aitzinean.

32. artikulua. Neurriko abiadura.

Neurriko abiaduran ibiliko da eta, beharrezkoa bada, ibilgailua geldituko da, inguruabarrek hartaritzen dutenean, bereziki halakoetan:

a) Erabiltzen ari den bide zatian oinezkorik bada, edo aurreikusten ahal bada oinezkoak sartuko direla, bereziki haurrak, zaharrak, itsuak edo modu nabarmenean ezindurik daudenak.

b) Erabiltzen ari den bide zatian animaliarik bada, edo aurreikusten ahal bada animaliak sartuko direla.

c) Oinezkoendako pasalekuetara hurbiltzean, semaforoak edo bidezainak arautu gabe daudenean, eta orobat ikastetxeetara edo oinezko anitz dauden tokietara hurbiltzean.

d) Geralekuan dagoen autobus batera hurbiltzean, aurrekontuekoa baita erabiltzaileak jeitsi edo igoko direla.

e) Zoru lerrakorretan barna ibiltzean, edo bidearen erabiltzaileak urez, legarrez, lokatzez edo bertze edozertaz ziprztintzen ahal direnean edo halakoak jaurtitzen ahal zaizkienean.

f) Biribilguneetara, lehentasunik gabeko bidegurutzeetara, obretan dauden lekuetara edo galtzadaren meharguneetara hurbiltzean.

g) Laino trinkoa, euri handia, elurra, horma, errauts lainoak edo ke adarrak direnean.

## VI. KAPITULUA

### ZAMALANAK

33. artikulua. Arau orokorrak.

1. Salgaien garraioan aritzen diren ibilgailuek eginen dituzte zamalanak haietarako erreserbatutako guneen barnean eta erregelamenduzko seinale etzan edo zutikakoen bidez adierazitako orduetan; betiere, ibilgailuak 2 metro zabal edo 5,5 metro luze izanen dira, gehienez ere.

2. Hiribideetan salgaiak banatzeko dauden ibilgailuendako gehieneko pisu baimendua 8.000 kg izanen da; pisu handiagoa eramaten duten ibilgailuek behar den udal baimena eskuratu beharko dute lan horiek egin ahal izateko.

3. Inolaz ere ez daiteke oinezkoen eta ibilgailuen ibilia eragotz edo oztopa, ezta atari, saltoki edo pasabide baimenduen sarbideak ere. Horretarako, zamalanetan erabiliko diren merkataritzako gaiak, materialak eta gauzak, lurrean utzi gabe, zuzenean eramanen dira ibilgailutik eraikinera edo alderantziz.

4. Lan horiek egiteko behar adina langile egonen da, eta arretaz ariko dira, azkar, arriskurik gabe eta asots guti aterata.

5. Ibilgailuak espaloiarekiko paraleloan lerrokatu beharko dira, ertzaren kontra, aitzinaldea zirkulazio orokorraren norabidean, salbu eta bateriako aparkalekuetan, kasu horretan ibilgailuak ezin izanen baitira horretarako seinalatu den eremutik kanpora atera.

34. artikulua. Denbora.

Zamalanetarako erreserbatuetan ezin izanen da aparkatu lan horiek egiteko behar den denbora baino luzeago, eta inoiz ez 30 minutu baino gehiago.

35. artikulua. Kasu bereziak.

Udalak aparkatzeko aldi baterako erreserbak ematen ahalko ditu, lan zehatzak egiteko (aldaerak, fuelaren hornidura, obrak etab.), betiere aitzinetik eskatzen bada eta dagokien tasa ordainzen bada.

## VII. KAPITULUA

### **ZERBITZUGUNEA**

36. artikulua. Arau orokorrak.

Edozein ibilgailuk aparka dezake denbora tarte jakin baterako, erosketak egiteko edo hemengo merkataritzarekin ikusteko duen beste edozein jarduera egiteko. 33. artikuluko 3. puntuan dauden arauak aplikatuko dira. 2. erankinean ezarri dira horretarako erabiliko diren eremuak. Alkatetzaren dekretuaren bidez alda daitezke eremu horiek.

## III. TITULUA

### **GELDITZEA ETA APARKATZEA**

## I. KAPITULUA

### **ELBARRIEK APARKATZEKO TXARTELA, ERRESERBATUAK ETA APARKATZEA**

37. artikulua. Xedea.

Desgaitasuna dutenei aparkatzeko txartelak emateko edo berritzeko arauak ezarriko dira, kontuan hartuz desgaitasuna dutenen aukera berdintasuna eta haien gizarteratzea. Hori, legedi honekin bat: Europako Kontseiluak 1998ko ekainaren 4an egin zuen 98/376/CE Gomendioa eta EEAO C 62/24, 1998ko otsailaren 26koa; eta abenduaren 19ko 19/2001 Legearen 7.b artikulua; azken lege horrek Bide Segurtasunari eta Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari buruzko Legearen testu artikuluduna (martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) aldatu zuen; helburua da desgaitasuna duten pertsonen ibilgailua aparkatzea, aparkatu eta gero ibilaldi luzerik egin beharrik gabe.

38. artikulua. Baldintzak.

Aparkatzeko txartela eskuratzeko, beharrezkoa izanen da baldintza hauek betetzea:

1. Baliaezintasun iraunkorra duten gidariak.

a) %33tik goitiko elbarritasuna egiaztatzen duen ziurtagiria, garraio publiko edo kolektiboa erabiltzeko ezgaitasunen bat tarteko dela dioena.

b) %33ko elbarritasuna edo handiagoa egiaztatzen duen ziurtagiria eta Nafarroako Osasun Zerbitzuak emandako osasun agiria, frogatzen duena elbarritasunak modu larrian eragiten diola honetarako:

-Ibiltzeko, zangoetako edo gerri pelbikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela-eta, makulua, eskumakilak, protesiak edo ortesiak erabiltzera behartuz.

-Ehun metroko tartean gelditu gabe ibiltzeko, gaitz organiko edo funtzionalek eraginda.

-Aulki gurpilduna behar izatea bere joan-etorrietarako.

-Aparkatzeko maniobrak egiteko, zango-besoetako edo gerri pelbikoko eta/edo sorbalda-gerrikoko gaitz muskulu eskeletikoa dela eta.

(Nafarroako Osasun Zerbitzuaren ziurtagiriaren ordeztuz, Uharteko Osasun Etxearen ziurtagi bat erabil daiteke 6 hilabetez gehienez ere, Gizarte Ongizatearen Departamentuaren agiri ofiziala eskuratu arte)

c) Elkarrizketa Albienteen zerbitzuko nagusiarekin.

2. Baliazintasun iraunkorra duten pertsonen zaintzaileak edo haiekin bizi diren ahaideak:

Agiri berak baliazintasun iraunkorra duen pertsonari dagokionez.

39. artikulua. Interesdunak hasiko du txartela lortzeko prozedura Udalaren Erregistro Orokorrean eskabide bat eta ondoko agiri hauek aurkeztuta:

-Minusbaliatuaren ziurtagiriaren fotokopia eta jatorrizkoa.

-Titularraren bi argazki, nortasun agirikoaren tamainakoak.

-Minusbaliotasuna aitortzen duen ebazpenaren fotokopia, aurreko puntuan jaso bezala.

-Udal mugapean bizitzeko ziurtagiria ez da eskatuko, Udal Erroldaren atalak zuzenean eskatuko baitu.

-Eskaera familiako batek egiten duenean, desgaitasuna duen pertsonaren eta eskatzailearen arteko loturari buruzko datuak emango dira: NANA, familia liburua...

-Ibilgailu horren zirkulatzeko baimenaren fotokopia.

-Gidabaimen eguneratuaren fotokopia eta jatorrizkoa.

40. artikulua. Europar Batasuneko estatu kide guztietan erabil daitezkeen txartela erabiltzeko arauak:

1. Txartela erabiltzen denean, ibilgailuaren aurreko aldean jarriko da, txartelaren aurrealdea aise ikusteko moduan dela, kanpotik kontrolatzeko.
2. Indarraldia amaituta, ez du gehiago baliorik izanen, eta hartu zen tokian itzuli beharko da. Han, bidezko bada, berritu egingen da.
3. Txartela daraman ibilgailua elbarrientzat erreserbatu eta seinalizatuta dauden tokietan aparkatu ahalko da, ordu mugarik gabe.
4. Orobat, zamalanak egiteko tokietan denbora tarte batean aparka daiteke, baita Albienteen zerbitzuko agenteek berriaz baimentzen duten tokietan ere.
5. Hura galdu edo lapurtuz gero, Albienteen zerbitzuari jakinarazi behar zaio.
6. Edozein arrazoi dela medio, txartela erabiltzeari utzi behar bazaio, hura non eskuratu zen, bertan itzuli beharko da, arrazoiak adierazita.
7. Kasu guztitean, 5 urtean behin berritu beharko da.

#### 41. artikulua. Debekuak.

Ondoko kasuetan, ezin izanen da inola ere ibilgailua aparkatu baimen honen babesean:

- Txartelaren titularra eramaten ez duenean.
- Oinezkoen pasabideetan.
- Espaloiaren gainean.
- Gelditzeko debekuaren seinalea duten tokietan.
- Garraio publikorako erreserbatutako tokietan.
- Orokorrean, ibilgailuen nahiz oinezkoen joan-etorria larriki trabatzen den tokietan.

#### 42. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Arau-hauste administratiboak dira:

- Txartela lortzeko aurkezten diren ziurtagiriak edo datuak faltsutzeak, edo hura eskuratzea galarazten dutenak ezkutatzeko 500 euroko isuna ekarriko du.
- Baimen administratiborik gabe hirugarrenen txartelak erabiltzeak edo iruzurra eginez haiek nolana ere erreproduzitzeak, txartelaren deuseztapena ekarriko du, baita 500 euroko isuna ere, izan daitekeen erantzukizuna ukatu gabe.
- Txartelarekin aparkatzeko erreserba erabiltzeak, txartelaren titularra ez badao ibilgailua sartzen edo ateratzen denean, 50 euroko isuna ekarriko du, ibilgailua gaizki aparkatzeko zehapenez gainera.

-Aurreko puntuaren arau-haustea urte batean hirugarren aldiz errepikatzeak txartela kentzea ekarriko du, eta handik bost urtera ezin izanen da berritu.

Faltsutu dutenak eta txartelaren eskatzaileak izanen dira arau-hausteen erantzuleak.

Arau-hausteak zehatzeko, aldez aurretik zehapen espedientea irekiko da; betiere, ebazpenaren aitzin, entzunaldia emanen zaie interesdunei. Zehatzeko ahalmenaren gaineko Erregelamenduan xedatzen denari jarraituz tramitatuko da.

43. artikulua. Desgaitasuna dutenendako erreserbatuak.

1. Desgaitasuna dutenendako aparkatzeko txartelek beren titularrari aukera ematen diote, Udalaren eskumeneko bideen barnean, desgaitasuna dutenendako aparkatzeko toki erreserbatuetan ordu mugarik gabe aparkatzeko, eta gehienez ere 15 minutuan zamalanetarako erreserbatuetan aparkatzeko.

2. Desgaitasuna dutenendako aparkatzeko tokiek izan beharko dituzte behar bezalako seinaleak, zutikakoak nahiz etzanak. Toki horiek erabiltzen dituztenean, desgaitasuna dutenendako aparkatzeko txartelen titularrek ikusteko maneran utzi beharko dituzte txartelak.

3. Txartela zer ibilgailutarako den, haren gidariak bizi diren etxebizitzaren inguruan saiatuko da desgaitasuna dutenendako toki erreserbatuak sortzen.

Desgaitasuna dutenendako tokiak ez dira eskatzailearendako bakarrik erreserbatuak egonen; txartel ahalmen emaileak dauzkaten gainerakoek ere erabiltzen ahalko dituzte.

44. artikulua. Bertzelako erreserbatuak.

1. Administrazio publikoek eta bestelako erakunde publiko edo pribatuak beren egoitzen inguruan aparkatzeko erreserbatuak eskatzen ahalko dituzte.

Erreserbatzeko tokiak hagitik kasu mugatuetan baizik ez dira onartuko, eta betiere hala egitea trafikoarendako edo ibilgailuen joan-etorriarendako mesedegarri, eragozpenak kentzeko baliagarri edo nolana dela ere interes publikoarendako onuragarri gertatzen den neurrian.

## II. KAPITULUA

### **PASATZEKO LIZENTZIAK**

45. artikulua. Pasatzeko lizentziak.

Atal honi dagokionez, Ibilgailuak espaloietan barna pasatzeko lizentziak eta eremu publikoetan lekua erreserbatzea arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

Hala ere, zenbait urbanizazioaren ezaugarri bereziak direla eta, aipatu ordenantzan kontuan hartu ez den antolamendu berezia aplikatuko da.

3. eranskinean jasotako urbanizazioak izanen dira horiek, eta hori aldatzeko, Alkatetzaren dekretua beharko da.

### III. KAPITULUA

#### **GELDITZEA ETA APARKATZEA**

46. artikulua. Arau orokorrak.

1. Udal Administrazioiari dagokio, eta hari baizik ez, erabilera publikoko bideetan, jabetza pribatukoak izanik ere, aparkatzearen eta zirkulazioaren antolamendua baimentzea.

Horren ondorioz, ez da zirkulazioa mozten ahal, ezta inolako seinalerik edo adierazlerik paratzen ahal ere, halako baimenik gabe.

2. Gelditu eta aparkatzean ibilgailuak ez du zirkulazioa trabatuko, ezta arriskurik sortuko ere bidearen gainerako erabiltzaileei; zainduko da non uzten den eta begiratuko, gidaria kanpoan delarik, mugitzen has ez dadin.

Aparkatzeko uzten den tokia zoladuran mugaturik dagoenean, markaturiko esparruaren barnean aparkatu beharko da.

Aparkatu behar da gainerako erabiltzaileei sartu eta ateratzeko maniobrak egiten uzteko eta gelditzen den espazioa ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran.

3. Jendea hartu edo uzteko edo zamalanak egiteko, ibilgailua 2 minutu baino gutxiagoz mugitu gabe edukitzea da gelditzea. Ez da gelditzezkat hartuko zirkulazioaren beharrak direla eta halabeharrez edo une batez geratzea.

4. Galtzadan geldituz gero, ertzetik ahalik eta hurbilena kokatuko da ibilgailua.

5. Auto-taxiak eta alokatzen diren bertzelako ibilgailu arinak Udal Administrazioak zehazten dituen tokian eta berak dioen gisan geldituko dira; gainerakoan, ordenantza honetan orokorrean ezartzen diren arauak hertsiki lotuko zaizkie gelditzean.

Auto taxiak erabiltzaileak eskatzen duen tokian gelditzen ahalko dira bezeroak hartu eta utzi beharrez, betiere trafikoari trabarik egiten ez badiote.

6. Autobusak, hiriko nahiz hiriarteko lineatakoak izan, udal agintaritzak espresuki zehazten edo seinalatzen dituen geralekuetan baizik ez dira gelditzen ahalko, bidaiariak hartu edo uzteko.

Modu osagarrian, hiri barneko garraio kolektiboaren zerbitzu publikoa ezartzen diren geraleku-helmugetan eta erregulaziokoetan egoten ahalko dira.

Hiri garraioaren araua izanen da Iruñerriko Hiri Garraio Publikoaren Zerbitzu Publikoa arautzen duen ordenantzako aldaketaren testu bateginean jasorik dagoena, Iruñerriko Mankomunitateak onetsi baitzuen.

7. Eskola garraioaren eta haren geralekuen araua izanen da 443/2001 Errege Dekretuaren xedatua.

8. Aparkatzea da ibilgailu bat bi minutu baino gehiagoan ez mugitzea, betiere zirkulazioak edo erregelamenduzko edozein baldintza bete beharrak eraginez ez bada.

9. Gidariak ez dute zilegi izanen ibilgailua geldirik eta motorra pizturik dagoela uztea, ibilgailu barnean gelditzen ez badira.

10. Gidariak hogeitazentimetro baino guttiagoko tartea utzi beharko dute espaloiko zintarriaren eta ibilgailuko gurpilen kanpo aldearen artean.

Bertze erabiltzaileek gainerako tokia ahalik eta hobekien erabiltzeko maneran aparkatuko da.

11. Udal Administrazioak aparkatze mugatuko araubidea ezartzen ahalko du halako eremu batzuetan, doakoa nahiz ordainduzkoa, parkimetroen edo bertze edozein sistemaren bidez arautua, trafikoa antolatzeko edo hautatzeko, edo aparkatzeko tokien banaketa bidezkoa bermatzeko.

47. artikulua. Autobusak, kamioiak, autokarabanak, atoiak, edukiontziak eta karabanak.

1. Debeku da 5.000 kg baino gehiagoko gehieneko pisu baimendua duten ibilgailuak aparkatzea udal mugapeko bide guztietan (industrialdeetan eta horretarako propio ezarritako tokietan izan ezik), zamalanak egiteko ez bada.

2. Debeku da 3.500 kg baino gehiagoko gehieneko pisu baimendua duten ibilgailuak ibiltzea eta aparkatzea oinezko eremuetan eta oro har Alde Zaharrean, espresuki baimena eman ezik.

3. 21 bidaiari baino gehiagoko edukiera duten autobusek ezin dute udal mugapeko bideetan aparkatu (industrialdeetan eta horretarako propio ezarritako tokietan izan ezik).

4. Debeku horiek ez dira beteko behar bezala justifikaturiko salbuespen kasuetan, betiere, alde aurretik agintari eskudunaren baimena eskuratu baldin bada.

5. Debeku da karabanak, atoiak edukiontziak eta erdiatoiak aparkatzea, Udaleko organo eskudunek baimena eman ezik.

Aparkatzea non baimentzen den, han aparkatuko dira autokarabanak oro har. Alde horretatik, ibilgailu mota horiek dauzkatenen etxebizitzetatik hurbil saiatuko da horrelako tokiak prestatzen.

Debeku da karabana, atoi eta etxebizitza-ibilgailuetan bizitzea udal mugapearen barnean, salbu eta horretarako egokitutako tokietan. Toki horiek osasungarritasuna eta higieena bermatzeko adina bitarteko izan beharko dute.

48. artikulua. Gelditzea.

Honelakoetan debeku da gelditzea:

- a) Babeslekuetan, babesguneetan, erdibitzaileetan, oinezkoen eremuetan eta trafikoa bideratzen duten gainerako elementuetan.
- b) Eraikinetako sarrera-irteeretan, dagokien pasabide seinalea dutenetan.
- c) Espaloi, pasealeku eta oinezkoak ibiltzeko gainerako tokien gainean.
- d) BUS, eskola garraio eta larrialdiko zerbitzuen geraleku behar bezala seinalatuetan.
- e) Taxi geralekuetan eta salgaien zamalanetarako erreserbatutako tokietan.
- f) Gelditzeak gidariei ikusi beharreko trafiko seinaleak ikustea eragozten dien tokietan.
- g) Bidariaren garraio kolektiboko ibilgailuak Udal Administrazioak bidaiariak utzi edo hartzeko erreserbatu edo baimenduriko eremuetatik kanpora aparkatzen direnean.
- h) Garraio publikoak edo bizikletek baizik ez erabiltzeko bide lerroetan.
- i) Jendeari higiezinetara sartu edo handik ateratzea eragozten zaionean.
- j) Zubietan, tuneletan eta gainetik pasabideen azpian, non ez dagoen kontrako seinalerik.
- k) Semaforoek araututako gurutzagune batean, gurutzagunea arautzen duten semafoerei eusteko zutoinek mugaturiko eremuaren barnean, seinaleek kontrakoa adierazi ezik.
- l) Zirkulazioaren bi norabideko bideetan, norantzaren ezker aldean gelditzean.
- m) Bigarren ilaran.
- n) Galtzadaren erdian, espresuki baimendurik egon ezean.
- o) Desgaitasuna dutenek bertze inork ez erabiltzeko toki seinalatuetan.
- p) Ibilgailu edo oinezkoen zirkulazioa arriskuan jartzen edo larriki trabatzen duten bertze edozein tokitan.

49. artikulua. Aparkatzea.

Honelakoetan debeku da aparkatzea:

- a) Gelditzeko debekua seinale zutikako nahiz etzanen bidez seinalaturik dagoen tokietan.
- b) Espaloi, pasealeku eta oinezkoak ibiltzeko gainerako tokien gainean. Edonola ere, Udalek udal ordenantzaren bidez erregulatzea daukate bi gurpileko ibilgailu zein ziklomotoreak espaloi eta pasealekuen gainean gelditu eta aparkatzea, baldin eta oinezkoen joan-etorriak oztopatzen ez badira, eta tamaina handiko gauzaren bat eramaten dutenen beharizanak kontuan hartuz, batez ere desgaitasunaren bat daukatenean.
- c) BUS, taxi, eskola garraio, erakunde ofizial eta larrialdiko zerbitzuen geraleku behar bezala seinalatuetan.
- d) Zamalanetarako erreserbatutako tokietan, erreserbarako behar diren seinaleen bidez ezarritako ordutegiaren barnean.
- e) Aparkatzeak gidariei ikusi beharreko trafiko seinaleak ikustea eragozten dien tokietan.
- f) Jendeari higiezinetara sartu edo handik ateratzea eragozten zaionean.
- g) Bigarren ilaran, nolana ere.
- h) Edukiontzien ondoan, zabor bilketa galarazi edo oztopatzen denean.
- i) Aparkaleku publiko batean, ongi aparkatutako ibilgailu bat ateratzea eragozten edo oztopatzen denean.
- j) Garraio publikorako erreserbatutako bide lerroetan.
- k) Espaloirik ez duten karrika urbanizatuetan, horretarako seinalaturik dauden tokietan izan ezik.
- l) Desgaitasuna dutenek bertze inork ez erabiltzeko toki seinalatuetan.
- m) Pasabide behar bezala seinalatuetan, osoki nahiz partez.
- n) Galtzadaren erdian, espresuki baimendurik egon ezean.
- o) Udal agintzaritzak zein tokitan baimentzen duen ordu mugatuetan aparkatzea, han ibilgailua baimendutako denboran baino gehiagotan aparkatuta dagoenean.
- p) Oinezkoendako pasabideetan, txirrindulariendako pasabideetan eta bide gorrietan.
- q) Luzetara aparkatzean, dauden seinaleen arabera baterian aparkatu behar bada.
- r) Bide bazterrean.

s) Aldi batean bertzelako erabilera edo jarduketetarako okupatu behar diren tokietan. Toki horiek behar bezala seinalatu behar dira, gutenez ere hogeita lau ordu lehenago.

t) Ibilgailu bat eremu publikoan aparkaturik gelditzen denean salgai edo alokagai jarri delako, eta funtsean publizitate helburuekin, edo kalez kaleko salmenta baimendu gabean edo bertzelako jarduera ez zilegietan aritzeko, edo behin baino gehiagotan konpontzeko.

u) Landa eta orubeetan, hara sartzeko modu bakarra espaloietan barna denean.

v) Lorategien aldean.

w) Bide publikoko toki berean, hogeita hamar egun baliodun baino gehiagoan.

x) Orobat, debeku da hirigunean tailerrek konpontzeko ibilgailuak aparkatzea aparkatzeko toki publikoetan, horretarako dauden tailerren barnean egin behar baita jarduera hori.

Nolanahi ere, jabeak egiaztatu behar du, berez edo bertze pertsona edo bitarteko baten bidez, bere ibilgailua ez dagoela behar ez bezala aparkaturik, seinaleak edo trafikoaren antolamendua nolaini aldatu direlako; horretarako, berrogeita zortzi orduko epea izanen du gehienez, horretarako egun baliodunak kontatuko direla.

## **IV. TITULUA**

### ***IBILGAILU ABANDONATUAK***

## **I. KAPITULUA**

### ***APLIKAZIO EREMUA***

50. artikulua. Definizioa.

Ibilgailu abandonatuak karrikatik kenduko dira, bere hartan epe mugarik gabe egon ez daitezen, eremu publikoa erabiltzeko ohiko aukerak murriztu eta narriadura estetikoa eta zikinkeria ekartzen baitituzte.

Bizikletak direnean, aski izanen da ibiltzea eragozten dioten hondaketak agerian izatea.

Ibilgailu bat abandonaturik dagoela uste izatekoa izanen da, orobat, eremu publikotik kendu eta altxatu denetik, bi hilabete baino gehiago iragan direnean eta haren titularrak alegaziorik egin ez duenean.

Eta, toki pribatu batean matxura edo istripu baten ondorioz ibilgailu bat jaso ondoren, haren titularrak bi hilabeteko epean hartu ez duenean.

Ibilgailu abandonatua ibilgailuak tratatzeko zentro baimendun batera eramateko agintzen ahal du Uharteko Udalak, hura desegin eta kutsagabetu dezaten.

## **II. KAPITULUA**

### **PROZEDURA**

51. artikulua. Prozedura.

Ibilgailuak eremu publikoan daudenean, Uharteko Udalak ibilgailuaren erregistroko titularrari jakinaraziko dio hura ustez abandonatua dagoela, eta bortz egun naturaleko epea emanen dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkezteko.

Ibilgailuak arriskuren bat sortzen ahal badu, hortik kenduko da eta, gero, titularrari jakinaraziko zaio.

Aurreko paragrafoan adierazitako epean titularrak alegaziorik aurkeztu ezean, bizikleten kasuan, bosgarren egunean udal altxatokira eramanen dira.

Ibilgailua udal altxatokira eramanen da.

Abandonaturik egoteagatik edo bertze arrazoiren batengatik ibilgailu bat altxatokira eramaten denetik bi hilabete iraganda, errekerimendua eginen zaio titularrari hilabeteko epean horrek eraman dezan, eta ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, hiri hondakin solidotzat hartuko dela.

Egokia dela juzgatzen denean, alkateak edo eskuordetutako agintariak, ibilgailua desegin ordez, erabaki dezake hura zirkulazioa zaindu eta kontrolatzeko zerbitzuei esleitzea.

Orokorrean eta bidezko arrazoirik izan ezean, ibilgailuak kentzeko eta altxatzeko gastuak horiek altxatokitik eraman aitzin ordaindu beharko dira.

## **V. TITULUA**

### **SALGAI ARRISKUTSUEN GARRAIOA ETA IBILGAILU BEREZIAK**

## **I. KAPITULUA**

### **ZIRKULAZIOA**

52. artikulua. Zirkulazioa.

1. Debeku da Salgai Arriskutsuen Errepide bidezko Garraioaren Erregelamendu Nazionalaren (1754/1976 Dekretuaren bidez onetsia) 1-a, 1-b, 1-c eta 2 motetan

sartutako salgai arriskutsuak garraiatzen dituzten ibilgailuek, Erregelamendu horren arriskuko 1 edo 2. etiketak eraman behar dituztenak Uharteko udal mugapean barna ibiltzea, ez bada bertatik iragaten diren ingurabide eta zeharbideetan barna.

2. Ibilgailu horiek aipatu eremua zeharkatzeko, Udaleko organo eskudunaren baimena beharko dute. Hartan zehaztuko dira garraio horren mugak egun, ordu eta ibilbideei dagokienez.

## **II. KAPITULUA**

### **APARKATZEA**

53. artikulua. Aparkatzea.

Gutziz debekatua dago 52. artikuluan aipatu ibilgailuek Uharteko udal mugape osoan aparkatzea.

## **III. KAPITULUA**

### **IBILGAILU BEREZIAK**

54. artikulua. Ibilgailu bereziak.

Beren ezaugarri bereziengatik, neurriengatik edo zamaren kokaeragatik Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren 14. artikuluan ezarritako baimenak behar dituzten ibilgailuek eskaera egin beharko diote Uharteko Udalari, Albienteen zerbitzuak eman diezaien herrian barna gidatu, zaindu eta lagun egiteko zerbitzua. Dagokion tasa, Iruñeko Udalaren behar den ordenantza fiskalean jaso, sorraraziko da.

55. artikulua. Bertzelako ibilgailuak.

Debeku da Iruñeko udal mugapeko bideetan animaliek tiraturiko ibilgailuak ibiltzea, espresuki baimena eman eta hartan zer bidetan eta zer baldintzatan ibil daitezkeen adierazi ezik.

Trizikloak ez dira ibiltzen ahalko ez bide gorrietan ezta espaloietan ere, metro bat zabal baino gehiago badira.

Segway-ekin bizikletekin bezala jokatu da eta ordenantza honetan horiendako erran diren guztiak aplikatuko zaizkie.

## **VI. TITULUA**

### **SEINALEAK**

## I. KAPITULUA

### **PARATZEA**

56. artikulua. Ezartzea.

Udaleko organo eskudunak aginduko du kasu bakoitzean bidezko diren trafikoko seinaleak ezartzea, kentzea eta ordezkatzera. Orokorrean, partikularrek ez dute zilegi izanen trafikoko edo zirkulazioko seinaleak paratzea, salbuespenak izan ezik, hala nola ibilgailuendako pasabideko seinaleak, Udaleko organo horrek behar den baimena eman ondoan.

Ordenantza honen xede diren bideen erabiltzaile guztiak beharturik daude zirkulazioko seinaleei obeditzera eta beren portaera egokitzera beraiek doazen bideetan aurkitzen dituzten gainerako erregelamenduzko seinaleen mezuaren arabera.

57. artikulua. Aplikazioa.

Uharteko sarbideetan paratzen diren seinaleek udal mugape osoan izanen dute indarra, halako karrika tarteren baterako seinale berariazkoak izan ezik.

Oinezkoendako lehentasun eremuen eta zirkulazio murriztuko edo aparkatze mugatuko gainerako aldean sarreretan paratzen diren seinaleek delako perimetrotako barne bide guztietan izanen dute indarra, bertze seinale batek salbuespena adierazi ezik.

## II. KAPITULUA

### **EDUKIA**

58. artikulua. Edukia.

Partikularrek ez dute libre seinaleak paratzea (hotelak, jatetxeak, garajeak...), Udalak baimendu behar dituen salbuespenak izan ezik. Ez da baimenik emanen trafiko seinaleen gainean nahiz ondoan plakarik, afixarik, iragarkirik edo bertzelakorik paratzeko, nahasmendua ekarri, haien ikusgaitasuna edo eraginkortasuna murriztu edo bidearen erabiltzaileei arreta galarazten ahal badie.

Trafikokoak ez diren seinale guztiak berehala kenduko dira, behar bezala baimendurik ez badaude edo udal baimenaren baldintzak betetzen ez badituzte, arau-hauslearendako bidezko izan daitekeen zehapena aparte utzirik.

Zirkulazioko Seinale eta Bideko Marken Katalogo Ofizialean ohartarazi, jakinarazi, agindu edo arautu nahi denari dagokion erranahia duen seinalerik ez bada, Udalak onetsiko du egokiena iruditzen zaion seinale eredua edo seinale multzoa.

Delako seinalea edo seinale multzoa diseinatzeko, ahaleginak egingen dira aipatu katalogoko forma, sinbolo eta hiztegi berariazkoak erabiltzeko, oker egiteko biderik eman gabe.

59. artikulua. Bidegorriak.

Bidegorriek seinale berariazkoak izanen dituzte, zutikakoak nahiz etzanak. Seinale etzanek zirkulazioaren norantza adieraziko dute, eta ohartaraziko hurbil dela oinezkoendako pasabidea, semaforoa edo gurutzagunea. Zutikakoek oinezkoekin partekatzen diren eremuak arautuko dituzte, baita semaforoak dituzten gurutzabideetan nahitaez egin behar diren geldiketak ere, eta ibilgailu motordunen gidariei ohartaraziko diete txirrindulariak heldu direla zirkulazioaren bi norantzetan. Seinale horiez gain eta horien osagarri, Udalak bertze seinale batzuk ere paratzen ahalko ditu, argibideak emateko eta jendeak kasu emateko.

Galtzadak gurutzatzeko seinaleak honelakoak izanen dira: marra bikoitz etena, zuria, 0,40 m zabal eta 0,50 m luze, tarte bera dagoela hurrengo markaraino eta bi marren artean tarte aldakorra dagoela, bide gorriaren zabalera zein den eta horrela.

## VII. TITULUA

### **ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK. ZUHURTASUNEZKO NEURRIAK**

## I. KAPITULUA

### **IBILGAILUAK IBILGETZEA**

60. artikulua. Ibilgailuak ibilgetzea.

1. Agintaritzako agenteek eta laguntzaileek ibilgailu bat ibilgetzen ahalko dute, hura erabiltzeak zirkulaziorako, pertsonendako edo ondasunetarako arrisku larria ekartzen ahal badu bide segurtasunari buruzko araudiko aginduak ez betetzeagatik, baita honelakoetan ere:

a) Istripuren edo matxuraren bat izan eta segurtasun baldintza ohikoetan bidean jarraitu ezinik gelditzen denean edo galtzada hondatzen duenean.

b) Gidaria gaizkitu eta ibilgailua normaltasunez eraman ezinean gelditzen denean.

c) Ageri denean gidaria edari alkoholdunen eraginpean dagoela, edo droga toxikoak edo sorgokariak hartu edo bere organismoan sartu dituenean, edo botiken edo bertzelakoen eraginpean dagoenean, horiek gidatzeko gorputzez nahiz buruz behar den egoera bertzelakotzen badute.

d) Gidariak alkohola, sorgogarriak edo gisako beste gai batzuk hautemateko probak egin behar eta horiei uko egiten dienean edo proba horiek eginda, araudian gehienekotzat jotzen diren parametroak baino handiagoak ateratzen direnean.

e) Gidariak gidabaimenik ez duenean edo aldean duena baliozkoa ez denean.

f) Gidariak gidabaimena edo horren ordezkotza baimena aurkezten ez eta haren nortasunaz eta helbideaz dudak daudenean.

g) Ibilgailuaren kanpo egoera dela-eta uste izatekoa denean arriskugarria dela, galtzadan kalte egin dezakeela edo haren kargaren parte bat eremu publikora erortzen ahal zaiola.

h) Dabilen ibilgailu baten garaiera edo zabalera handiagoak direnean Bide Segurtasunari buruzko Legeak edo haren Erregelamenduak, edo ibilgailuaren beraren baimen bereziak, halakorik badu, baimentzen dituenak baino.

i) Bidaiarien kopuru edo kokaeraren ondorioz edo garraiatzen diren gauzen kokaeraren ondorioz, gidariak mugitzeko eta ikusteko dituen aukerak modu nabarmen eta arriskutsuan murrizten direnean.

j) Kateak edo pneumatiko bereziak erabiltzea nahitaezkoa izan eta ibilgailua horiek gabe ibiltzen denean.

k) Ibilgailuak nahitaezko aseguruak ez duenean.

l) Motozikleta edo ziklomotor baten gidaria kasko homologaturik gabe ibiltzen denean, gabezia hori zuzendu arte.

m) Ibilgailuak ateratzen duen asotsa eta aireratzen dituen gas eta keak indarra duen legeriak ezarritako mugak baino handiagoak direnean.

n) Ibilgailuari baimendu gabeko erreforma handia egin zaionean.

2. Arau-haustea egin zuen gidariaren kontura izanen dira ibilgailua ibilgetzeak dakartzan gastuak. Bestela, ohiko gidariaren edo errentariaren kontura izanen dira, eta halakorik ezean, titularraren kontura; horrek ordaindu beharko ditu edo ordaintzea bermatu, neurri horiek kentzeko alde aurreko baldintza gisa, ukatu gabe ere defendatzeko duen eskubidea edo erantzukizuna erantzuleari pasatzeko aukera ere, Administrazioak harengatik hartu baitu delako neurria.

3. Agintaritzako agenteek zehaztutako tokian eginen da ibilgetzea. Horretarako, agenteek gidariari esan diezaioke zehaztutako lekuraino gidatzen jarrai dezala. Ibilgetzea ez da kenduko harik eta hura sortu zuten akatsak zuzentzen diren arte edo agintaritzak horrek zehazten dituen baldintzetan ibilgailua kentzen den arte, dagokion tasa ordaindu ondoren, halakorik balego.

3. Ibilgetutako ibilgailua errentamenduko araubidean erabiliko balitz, ibilgailua ibilgetu ordezkotza, arau-hausleari debekatutako zaio ibilgailua erabiltzea.

## II. KAPITULUA

### **IBILGAILUAK EREMU PUBLIKOTIK KENTZEA**

61. artikulua. Ibilgailuak eremu publikotik kentzea.

Ibilgailua kendu behar duenak segituan egiten ez badu, udal agenteek eta laguntzaileek eremu publikotik kendu eta udal altxatokira eramaten ahalko dute, kasu hauetan:

a) Arriskutsua denean, ibilgailuen edo oinezkoen zirkulazioari nahiz zerbitzu publikoen funtzionamenduari traba larria egiten dienean, ondare publikoa hondatzen duenean eta, orobat, ibilgailu hori eremu publikoan abandonatua dagoela uste denean.

b) Istripuren bat izan eta abiatu ezinik gelditzen denean.

c) Legez ibilgailua ibilgetu behar eta hura egiteko manerarik ez dagoenean ibilgailu edo jendeen ibilia trabatu gabe.

d) Arau-haustea dela eta ibilgailua ibilgetuta, arau-hausleak ez badu frogatzen bere ohiko bizilekua lurralde espainarrean duela eta isunaren zenbatekoa ez ordaintzera edo haren ordainketa ez bermatzera tematzen denean.

e) Udal agintaritzak ordutegi mugatuan aparkatzeko gaitzen dituen tokietan ibilgailua aparkaturik gelditzen denean, horretarako baimena ematen dion bereizgarria ezarri gabe, edo dagokion udal ordenantzaren arabera ordaindutako denbora halako hiru egiten duenean.

f) Ibilgailua zirkulaziorako edo zenbait erabiltzailereren zerbitzurako soilik erreserbatutako bide lerroetan edo bide zatietan nahiz zama-lanetako eremuetan aparkatuta dagoenean.

g) Edukiontzia husteko lanak oztopatzen dituenen.

h) 55. artikuluan ezarritakoari jarraikiz ibilgailu bat ibilgetuta, ibilgetzea sortu zuten arrazoiak desagertzen ez direnean.

62. artikulua. Arriskua eta trafikoa larriki tratatzea.

Aipatze aldera baizik ez, honelakoetan ulertuko da ibilgailua 61. artikularen a) atalean adierazitako egoeran dagoela eta, beraz, hura kentzeko arrazoiak daudela:

a) Gelditzea debeku den toki batean aparkatuta dagoenean.

b) Ibilgailua bigarren ilaran eta gidaririk gabe aparkatuta dagoenean.

c) Kantoi baten ertzetik edo izkina baten mutur edo eskuadratik zati bat aterata, bertze gidariak maniobra arriskutsuak egitera behartzen dituenen.

- d) Oinezkoen pasabide seinalatu batean edo espaloian elbarriak pasatzeko oketsean aparkatua dagoenean.
- e) Ordutegi erreserbatuaren barnean pasabide bat osorik edo partez okupatzen duenean.
- f) Zamaletarako tokietan aparkatua dagoenean, haiek erabiltzen diren orduetan eta halako lanak egin gabe.
- g) Garraio publikorako geraleku seinalatu eta mugatu batean aparkatua dagoenean.
- h) Larrialdiko edo segurtasuneko zerbitzuentzat erreserbatutako tokian aparkatua dagoenean.
- i) Desgaitasuna dutenendako toki erreserbatuan aparkatua dagoenean.
- j) Espaloi, ibiltoki, babesgune, pasaleku, bide gorri edo zoladuran zerrendak pintatuta dauden tokietan aparkatua dagoenean, osorik nahiz partez, espresuki baimenduta dagoenean izan ezik.
- k) Bidean doazen gainerako erabiltzaileei trafiko seinaleak ikustea eragozten dienean.
- l) Biraketa eragotzi edo hura egiteko maniobrak egitera behartzen duenean.
- m) Bide batetik heldu diren gidariei bertze bidea ikustea trabatzen dienean.
- n) Eraikin bateko sarrera osorik nahiz zati bat oztopatzen duenean.
- o) Galtzadan aparkaturik egonda zirkulazioa trabatzen duenean.
- p) Oinezkoendako eremu batean baimendutako orduetatik kanpo aparkatua dagoenean, espresuki baimendutako aparkalekuetan izan ezik.
- q) Eremu partekatuetan, oinezkoendako eremuetan aparkaturik dagoenean.
- r) Landetan aparkatua dagoenean, hara sartzeko modu bakarra espaloietan barna baldin bada.
- s) Lorategien aldean aparkaturik dagoenean.
- t) Garraio publikorako erreserbatutako bide lerroetan aparkaturik dagoenean.
- u) Taxi geralekuetan aparkaturik dagoenean.
- v) Betiere, aurreko kasuetan bezala, arriskua edo zirkulazioari zein zerbitzu publikoen funtzionamenduari eragozpen larria sortzen zaienean.

Ebatsia denean edo, behar bezala frogaturik, ibilgailua titularraren borondatearen kontra bertzela erabiltzen denean izan ezik, ibilgailua kentzen bada, horren ondoriozko gastuak titularraren kontura izanen dira; eta horiek ordaintzea edo haien ordainketa

bermatzea aldez aurreko baldintza izanen du ibilgailua itzuliko bazaio. Horrek ez du deusetan ukatzen errekurtoa aurkezteko duen eskubidea, ezta gastu horiek istripua eragin, ibilgailua abandonaturik utzi edo arau-haustea egin duen lagunari kobratzea ere, egitate horietariko batengatik eraman badiote ibilgailua.

63. artikulua. Bertzelako kasuak.

Arau-hausterik egon gabe ere, bide publikotik ibilgailuak kendu ahal izanen dituzte honelakoetan:

1. Behar bezala baimendutako ekitaldi publiko bat egiteko erreserbatua dagoen toki batean aparkaturik daudenean.

2. Bide publikoa garbitu, konpondu, kontserbatu edo hartan seinaleak jarri ahal izateko ibilgailuak kendu beharra dagoenean.

3. Larrialdietan.

Inguruabar horien gaztigua lehenbailehen egin beharko da, eta baimendutako tokirik hurbilenera eramanez dira ibilgailuak, edo udal altxatokira, eta titularrei non dauden jakinaraziko zaie.

Eramateak ez du inolako ordainketarik sorraraziko, ibilgailua noranahi eramanda ere.

64. artikulua. Kentzeko lanak bertan behera.

Baldin eta, ibilgailua kentzeko lanak hasita, gidaria agertzen bada, bertan behera utziko dira lan horiek, betiere, behar den ordenantza fiskalean kontzeptu horrengatik agertzen den tasa ordaintzen bada.

### III. KAPITULUA

#### **ZEHATZEKO PROZEDURA**

65. artikulua. Prozedura.

Azaroaren 23ko 18/2009 Legearen 3. kapituluan eta hura garatzen duten erregelamenduzko xedapenetan xedatuarekin bat instruituko da prozedura, baita, osagarri gisa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatuarekin bat ere.

66. artikulua. Arau-hausteen sailkapena.

Arau-hauste arina izanen da ordenantza honetan xedatua ez betetzea, trafikoari buruzko araudian edo aplikatzekoa den bertze araudi batean arau-hauste larriaren edo oso larriaren kalifikazioa ez baldin badu.

67. artikulua. Berehalako ordainketa.

Salaketa jakinarazi ondoko hogeit hamar egun naturalean %50 merkeago ordainduko dira ordenantza honetako arau-hausteen ondoriozko isunak. Isuna %50 merkeago ordaintzen bada, uko egingen zaio alegaziorik aurkezteari eta ebazpen espresa eman beharrik gabe bukatu daiteke prozedura. Nolanahi ere, gainerako kasuetan dagozkion errekursoak aurkez daitezke.

68. artikulua. Instrukzioa.

Albienteen zerbitzuko buruak, Udalaren idazkariak edo haien legez ordeztuak dituenak instruituko ditu ordenantza honetan xedatua ez betetzeagatik hasitako zehapen espedienteak.

69. artikulua. Udalak eskumenik ez duenean.

Zehapena Udalaren eskumenekoa ez den arau-hausteen kasuan, Uharteko Albienteen zerbitzuak salaketa egingen du, eta horren ondotik Uharteko Udalak berak administrazio eskudunari igorriko dio.

70. artikulua. Gidabaimena bertan behera uztea edo kentzea eta puntuak galtzea.

Diru zehapenarekin batera, gidabaimena edo gidatzeko lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko zehapena eta puntuen galera ere jaso dezaketen arau-hausteengatik irekitako zehapen espedienteak, betiere zehapena Udalaren eskumenekoa duten egitateak badira, egiteko hori duten udal organoek tramitatu eta ebatziko dituzte, eta ondotik agintari eskudunari igorriko zaizkio, soilik gidabaimena edo gidatzeko lizentzia bertan behera utzi edo kentzeko edo esleituriko puntuetako bat galtzeko zehapena ezar dezan, hala behar badu.

71. artikulua. Helbidea, jakinarazpenetarako.

Horri dagokionez, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Legean 18/2009 Legearen bidez sartutako 59 bis artikuluan (Baimen administratibo baten titularren helbidea eta bideko helbide elektronikoa) xedatuari jarraituko zaio.

## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

Bakarra.-Izatezko egoerak.

Ordenantza hau aldarrikatu eta indarra hartzean diren izatezko egoerak legeztatu beharko dira eta ordenantza honekin bat egin, egitatezko egoera horiek noiznahitik etorrira ere.

## **AZKEN XEDAPENA**

Bakarra.-Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 326. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, ordenantza honek ez du sortuko ondorio juridikorik harik eta testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Estatuko Administrazioak edo Foru Komunitateko Administrazioak toki erakundeei egintzak edo erabakiak deuseztatzeko errekerimenduak egiteko ahalmena erabiltzeko epea iragan arte.

## 1. ERANSKINA

### **OINEZKOENDAKO KARRIKAK ETA PARTEKATZEKOAK, ABIADURA MUGA 20 KM/H DUTENAK**

San Juan plaza.

Miravalles karrika (zenbaki bikoitiak).

Artadiburua karrika.

San Esteban karrika.

Ibaialde karrika.

Pastorico karrika.

Martiket urbanizazioa.

Zokoa urbanizazioa.

Portal.

El Ferial plaza.

Ugarrandia etorbidea, galtzardiak dituen eremua.

## 2. ERANSKINA

### **ZERBITZUGUNEAK UKITUTAKO KARRIKEN ZERRENDA**

Zubiarte karrika (4tik 28raino).

P. Goyena karrika (3tik 7raino).

Miravalles karrika (3aren parean).

## 3. ERANSKINA

## ***APARKATZEKO ARAUBIDE BEREZIA DUTEN URBANIZAZIOAK***

Martiket urbanizazioa.

Zokoa urbanizazioa.

Itaroa urbanizazioa.

Familia bakarreko etxebizitzak eta etxebizitza atxikiak Alde Zaharrear (zehaztu beharrekoak).